

KONTZERTUAK SOINUENEAN

NEGUKO KONTZERTUA

2018ko urtarrilaren 27an - 18:30 - Oartzungo udaletxean - 5 euro

GERGELYES

Hungariar csángó-en musika eta dantza

TALDEA Hungariar csángó-en (Errumanian dagoen Moldaviako eskualdea) musika eta dantza herrikoia egiten dute musika entzunez pauso eta koreografia errazak, baita norberari bururatzen zaizkion aldaerak, dituzten dantza parte-hartzaile hauek ikasten dituen jendartearentzat. Beraien errepertorioan ugariak dira borobilean egiten diren dantzak, eta horien ondoan bikoteka, lerroan edo kate solteko dantzaren bat edo beste. Musikariek errepikapenak aldaketak eta doinuan oinarritutako inprobisazioekin laguntzen dituzte, flautekin eta moldaviar kavalarekin (bost zuloko flauta luzea), kobozarekin (trasterik gabeko lauta) eta biolinarekin intentsitatea eta abiadura handitzearekin batera.

Taldearen sortzaileek (Veronika Gergely eta Sergio de la Ossa) Budapesteko táncház edo kaleko dantza ekitaldian eta dantzen gertuko ezagutza zutenek zuzendutako ikastaro edo tailerretan ikasi zituzten dantza hauek. UNESCO-k 2011 urtean táncház mugimendua babestu beharreko jardunbide izendatu zuen, eta Moldaviako hungariarren dantzek jendartearen aparteko arrera dute: musika honen izaera eta dantzetan egiten diren mugimendu errazak edozein pertsona taldera berehala batu eta dantzaz gozatzea errazten duela eta, ehunka pertsona dira astero dantzaldi hauetan elkartzeko direnak.

PARTAIDEAK

Dantza, ahotsa Veronika Gergely (Budapest, 1983). Herri kantaera Majda Mária Guessous-ekin eta csángó hungariarren dantzak *Eleven Ördög* taldean Judit Ábrahám-ekin Budapestean ikasi zituen.

Sub Rosa eta *Salebra* erdi aroko musikako taldeetako partaidea izan zen, bertan galiziar-portugaldar kantigak interpretatu zituen hainbat kontzertu eta ekitalditan. Hungariar eta Portugaldar Filologian lizentziatua da eta kultur ekintzetako laguntzaile, hizkuntzen irakasle eta



itzulpengintzan aritu da.

Koboza Sergio de la Ossa (Madril, 1978) Kodály Musika Pedagogian aditua, gitarra jolea eta etnomusikologoa da. *Museo do Pobo Galego*-ko herri musika artxi-boaz arduratzen da 2007 urtetik eta 2011 eta 2015 artean Liszt Akademiako (Kecskemét, Hungaria) Kodály Institutuko irakaslea izan zen. Rita Szabó eta József Bedőcs-ekin ikasi zuen dantza eta galiziar herri dantzari buruzko *Así fan os bailadores...* (Dos Acordes, 2009) liburuaren sortzaileetako bat da.

Flauta, moldaviar kavala Olivier Cano (Ferrol, 1981). Parisen ikasi zuen zeharkako flauta eta Coruñan osatu zuen ikasketa klasikoa César Concheiroekin. Jazza Vincent Bourgeyekin eta Belmondo anaiek Parisen duten IACP-an ikasi zuen. Galiziara itzulita saxofoiarekin hasi zen jazz eta musika modernoan ikasketa sakontzearekin batera. *A Magnifique Bande dos Homes sen Medo*-ko partaide izanik Galizia, Euskadi eta Britainiako jaialdian aritu da. Estudioko musikari maiz aritzen da eta *Os Tres Trebóns*, *Barbara Lynn* edo *Femi Kuti* bezalako artistak lagundu ditu.

Biolina María Blanco (Lalín, 1983). Biolin klasikoa ikasi ondoren tradizionala ikasi zuen Quim Farinha maisuarekin. Tis Che Tein folk taldeko kidea, galiziar musikari ezberdinak lagundu ditu eta herri musikak eta soinutresnarentzat teknika berriak ikasten jarraitu du. Musika hezkuntzan maisua da eta 2002tik musika erakusten dihardu. Gaur egun aCentral Folque-ko biolin tradizionalako irakaslea da Santiago de Compostelan.

ETA GOIZEAN
(HELDUENTZAT)

HUNGARIAKO DANTZAK

Gergelyes-eko kideek
hungariar csángó-en dantzei
buruzko tailerra emango dute.

Lekua: OIARTZUNGO
UDALETXEA

Eguna: 2018-01-27

Ordua: 11:30

Parte hartzeko
Soinuenera idatziz izena
eman behar da.

ORDAGO FOLK

Lakrinkron



ORDAGO FOLK taldea 2014ko udaberrian sortu zen bereziki Euskal Herriko musika tradizionala lantzeko asmoz. Talde berria izan arren, eskarmentu handiko musikariak bildu gara bertan. Arabako folklore elkarte, dantza talde, abesbatza eta txistulari eta gaitero bandetan aspalditik gabiltzanak gara.

Taldearen egoitza nagusia Arabako iparraldean dagoen Murgian dugu eta hango dantza, euskara eta auzo elkartearekin harreman handia daukagu. Azken urteotan hogeita hamar emanaldi inguru egin ditugu Araban, Burgosen eta Bizkaian. Besteak beste, Autrigalia Fest, Folkez Blai eta Aitzina Folk jaialdietan aritu gara. Aldi berean, gure lurraldeko herri musika gaur egungo inguru teknologiko berrian ezagutzera emateko egiten ari garen ahaleaginean sare sozialetarako lan ugari plazaratu ditugu, bideo formatuan bereziki. Lan horien artean garrantzitsuenak hauek dira: Zuiako dantza, Zuia Euskaraz, Tabernari Andrea, Garoñako Zikoina, Erre pui erre, Zuia Mazurka,...

Gure ikerketa-lanaren garapenean eta euskal folkloriko abestiak birlantzen ari ginela, berehala konturatu ginen Arabako errepertorioa kopuruan dagokionean eskasa zela. Batetik, mantentzen diren dantzak ez dira oso ugariak eta bestetik, gehienak musika-tresnenez dira. Oso urria da errepertorio bokala, bai gaztelaniaz bai euskaraz.

Hori dela eta, kantu bildumetan agertzen diren Arabako herri abesti askok liburuetan ahaztuta urte asko daramatzatela ikusita, haiek jorratzen hasi ginen.

José Luis Cantabrana Ochoa:

ahotsa, txistua, txirula eta perkusioa.

José Antonio Fernández Ramírez:

akordeoia (Roland frx1).

David Delgado Costana:

biolina.

Félix Pedrosa Garay:

klarinetea, gaita eta saxofoi sopranoa.

Alfonso Rojo Pliego:

perkusioa.

Beraz, eta arestian aipatutakoa kontuan hartuz, hauek izaten dira lan egiteko jarraitzen ditugun ildo nagusiak: dantza berrien sorkuntza, dantzen berreskurapena, errepertorioaren egokitzapena eta berrinterpretazioa, eta kanta berrien sorkuntza, Felipe Zelaieta bertsolariaren laguntzarekin.

Lan honen ondorioa izan zen 2016an plazaratutako diskoa; "Lakrinkron" izenekoa alegia. 15 kanta daude bertan, Arabako herriko musikan erabat oinarrituta, gehienbat Arabako musikari dagokionean. Hamabost grabazioetatik hamaika herriko doinuetan errotuta daude eta beste lauak Josean Fernandez Ramirezek sortutakoak dira. Diskoan entzun daitezkeen lanetako batzuk erabat instrumentalak dira eta beste batzuk euskaraz abestutakoak. Era askotariko erritmo eta dantzak agertzen dira, esate baterako, fandango eta arin-arina, polka, habanera eta jota.

Testuei dagokionez, herriko kantak eta hainbat olerkari egindakoak agertzen dira: Lazarraga, Aita Meagher, Gamiz eta Felipe Zelaieta.

Jatorrizko kantetatik "Lakrinkron" izenekoa, diskoari izena ematen diona, azpimarratuko dugu. Sabandoko seme Juan Bautista Gamiz olerkariak egindako amodiozko kanta ederra da eta Ordago Folkek musikatu du. Testua XVIII. mendeko Arabako euskararen adibidea da.

Diskoan agertzen diren kantak Soinuenean egingo dugun emanaldiaren ardatza izando dira. Horiei urte honetan grabatu, baina oraindik argitaratu ez ditugun kanta berriak gehituko dizkiegu.

AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Aialde kalean dagoen Ibagain Kultur, Jolas eta Kirol elkartearen izango da. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

Kontzertua eta afaria: 20 euro



kontzertu honen laguntzaileak:

KULTUR, JOLAS ETA KIROL ELKARTEA

ibargain
Aialde OIARTZUN